

Mikel Laboaren sorkuntza artistikoa euskaldunontzat, euskaraz blai sentitzen edo sentitu izan garenontzat, gure garaian agertu zaizkigun galde eta zalantzen bideetako haizeorratz izan dela esatea ez litzateke doan. Laboaren ekintza artistikoak euskararen eta euskal kulturaren anizgaitasunari aurre egiteko jarreran bultzatu gaitu. Lehenik eta behin, hizkuntzak komunikazio biderako agertzen duen gaitasuna hausnartuz eta ikertuz – hizkuntzak berak erabilera hutsezko praktikaz at dituen bi bideei ekiten baitie: poesia eta musika. Poesiarekin, hitzek esaten ez dutena esan nahi izatera behartuz hizkuntza; musikarekin, hizkuntzaren oihua eta dardara zentzu ematen duten formatatik urrunduz.

Hizkuntza aldakorra da-eta, bizitzearekin batera aldakortasunaren musika eta poesia kantatzen ditu Laboak, aldarrikatutakoaren itxura nahasten doan neurrian une bakoitzean lehenean esandakoa berrituz; kantatu ez ezik iragarri, kantatu hori bizi eredu aberaskorra bihurtzen baita. Esatearen antzaldaketa dago sorkuntza honen funtsean; hizkuntza esperientzia aldakorraren lekua denean, sortzailearen presentzia poetikoa giza izatearen lekuko agertzen zaigu.

“Lekeitio”-ez baliatuz, Laboak euskal musikaren egoera berri bati aurre egin diezaioegula eskatzen digu. Hizkuntza poesiaren eta musikaren gailu izanik, hizkuntzaren izateari galde egin behar zaio bereiztasunek denaren anizkortsunarekin bat egin ahal izan dezaten – “bat egin” lekuan eta garaian. “Lekeitio” izenaren aukera bereziak horixe azaltzen digu (azaldu, hots, azalean ipini): lekua eta garaia ikertze honen kontingentziak direla.

Honek guztiak errealitate zehatz bati eragiten diolako ukitzen gaitu hain zuzenki Laboaren lanak. Errealitate historikoa poesiaren termino bihurtuz geure istorio bilakatzen da musika. Batean, ikerketaren galdera uhin bailitzan zabaldu eta sozialki bustitzen gaitu, giza arteko esperantzaren irrikitan.

Laboaren lana “gaur euskaldun” izatearen ispilu dela esan genezake: barneruntz ezkatutako ordez, “kanpora, plazara” jalgitzen den euskararena, munduaren labirintoan murgildurik. Ildo honetatik eta ildoaren eraginagatik, hunkitu, iratzarri eta erne gaituen ekimenaren marka daramagu aurrerantzean, eta hauxe zor diogu Mikel Laboari, gure gogoa pizten duen musika honi esker.

ramon lazcano, 2007ko uztaila

No es vano decir que la creación artística de Mikel Laboa ha sido, para aquellos que nos sentimos o nos hemos sentido empapados por el euskara, norte de los caminos de dudas e interrogaciones que nuestra época nos ha planteado. Por su acción artística, Laboa ha impulsado nuestra disposición para hacer frente a la capacidad plural de la lengua y de la cultura vasca. Ante todo, intuyendo e investigando las cualidades que muestra la lengua para la comunicación — por su empeño en explorar dos caminos que se sitúan más allá de la práctica primera de la lengua: forzándola para que las palabras signifiquen lo que no dicen, con la poesía; alejando su proclamación y su temblor de las formas que le dan su sentido habitual, con la música.

La lengua es cambiante, y Laboa canta la poesía y la música de la cambiabilidad paralela al vivir, renovando en cada instante lo ya dicho a medida que la apariencia de lo exclamado se difumina. No sólo las canta, las hace visibles, convirtiendo ese canto en un enriquecedor ejemplo vital. El fundamento de esta creación está en la transfiguración del decir: cuando la lengua es el lugar de la experiencia del cambio, la presencia poética del creador se nos aparece como testimonio del existir humano.

Valiéndose de los “Lekeitios”, Laboa nos pide que afrontemos una nueva situación de la

música vasca. Haciendo de la lengua el instrumento de la poesía y la música, hemos de interrogar el ser lingüístico para aunar sus particularidades con la multiplicidad de lo que ya es — “aunar” en un lugar y en una época. La misma elección, tan especial, del nombre “Lekeitio” nos explica (ex-pliega, lo sitúa fuera de sus pliegues) que el lugar y la época son contingencias de esta investigación.

El trabajo de Laboa nos toca tan directamente porque todo él se agita en una realidad determinada: La música se convierte en nuestra historia al volverse la realidad histórica en término poético. Súbitamente, la interrogación de la búsqueda se extiende como una ola y nos empapa socialmente, con el anhelo de una esperanza para y entre hombres y mujeres.

Podríamos decir que la obra de Laboa es un reflejo del ser “euskaldun hoy”: en lugar de retraerse y esconderse, es el reflejo del euskara que se expone y se proyecta, inmerso en el laberinto del mundo. Por este camino y por la acción del caminar, llevamos en adelante la marca de un empeño que nos despierta, nos emociona y nos hace vigilantes — es ésta nuestra deuda con Mikel Laboa, que con su música aviva nuestra memoria.

ramon lazcano, julio de 2007

Il n'est pas vain d'affirmer que la création artistique de Mikel Laboa représente, pour nous qui nous sentons ou nous sommes sentis imprégnés de l'euskara, le nord à la croisée des chemins des doutes et des questionnements auxquels notre époque nous confronte. De par son action artistique, Laboa a fourni à notre disposition la force et l'élan d'affronter la capacité qu'ont la langue et la culture basques à être plurielles. En tout premier lieu, par son intuition et sa recherche des qualités de communication que démontre la langue — ainsi, son acharnement à explorer deux routes qui divergent au-delà de la pratique première de la langue : avec la poésie, la forçant afin que les mots signifient ce qu'ils ne disent pas ; et avec la musique, en éloignant des formes qui lui confèrent son sens habituel, sa proclamation et son frémissement.

La langue est changeante; ainsi Laboa chante la poésie et la musique de cette changeabilité parallèle au vécu, en renouvelant à chaque instant ce qui vient d'être dit, à mesure que ce qui a été exclamé s'efface. Non seulement il chante cette poésie et cette musique, mais il les rend visibles, et son chant devient un exemple vital enrichissant. Le fondement de cette création se trouve dans la transfiguration du dire: quand la langue est le lieu de l'expérience du changement, la présence poétique du créateur apparaît à nos yeux en tant que témoin de l'homme qui existe.

Au moyen des "Lekeitios", Laboa nous demande de faire face à un nouvel état de la musique basque. On fait de la langue l'instrument de la poésie et de la musique, et ce faisant nous devons interroger l'être linguistique afin de rassembler ses particularités avec la multiplicité de ce qui est déjà — "rassembler" en un lieu et en une époque. Le choix même, si spécial, du nom "Lekeitio", nous explique (ex-plie, le situe en-dehors de ses plis) que le lieu et l'époque ne sont que des contingences de cette recherche.

Si le travail de Laboa nous touche au coeur, c'est qu'il est comme en ébullition au centre d'une réalité déterminée. La musique devient notre histoire quand la réalité historique se mue en terme poétique. Soudainement, l'interrogation de la quête s'étend comme une vague et nous imbibes socialement, dans l'aspiration d'un espoir pour et entre les hommes et les femmes.

Nous pourrions dire que l'oeuvre de Laboa est un reflet de "l'être euskaldun aujourd'hui": au lieu de se retirer et de se cacher, c'est le reflet de l'euskara qui s'expose et qui se projette, immergé dans le labyrinthe du monde. Sur ce chemin et par l'action du cheminement, nous portons désormais en nous la marque d'une volonté qui nous éveille, qui nous émeut et qui nous rend vigilants — voici notre dette envers Mikel Laboa qui, au moyen de sa musique, ravive notre mémoire.

ramon lazcano, juillet 2007